

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Erakundea: KIROLGI FUNDAZIOA
Programa: 010 - Kirolgi Fundazioa

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2005ean hausnarketa estrategiko bat egin zen, eta ondorioetan hainbat faktore zehaztu ziren, zeharka garatu beharrekoak jardun ildo guztietan eta errendimendu handiko kirolaren esparruan. Faktore estrategiko horietako bat "Emakumeen Kirola" izan zen. Lorpen nagusia Kirolgi Fundazioaren dirulaguntzen onuradunen kopurua eta emandako diruzko zenbatekoa orekatzea izan da. Gaur egun, ia % 50eko parekotasuna dago onuradunei dagokienez, eta emakumeen kirolera bideratutako baliabide ekonomikoaren % 56. Urtero eskatzen zaie taldeei eta kirolariei, dagozkien hitzarmenen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero-berdintasunaren inguruan egiten dituen ekintzetan inplikatzeko. 2023an, Gipuzkoako emakumeen goi-mailako kirol-errendimenduan genero-berdintasunari buruzko azterlan bat amaitu zen.

Kuantifikazioa: 462.778,75 (% 9,09)
Ordainketa kredituak: 462.778,75 (% 9,09)
Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	(% 100,00)	
Ea.HO.8.2 GFAREN genero zeharkakotasunaren strategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	Ea.8.2.1. GFAk kirol federazioei eta klubei kirol esparru guztietan eta lehiaketa maila guztietan emakumeek eta neskek parte hartzeagatik emandako dirulaguntzen eraginaren azterketa egitea.	(% 20,00)	
	Ea.8.2.2. Kirol klubetan eta federazioetan parte hartzen duten emakumeentzako ahalduntze esperientzia pilotu bat garatzea.	(% 100,00)	
Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	Ea.9.2.2. Emakume eta neskez osatutako kirol taldeen aitortza soziala sustatzea.	(% 100,00)	



Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkaritza eta/edo postu publikoetan.	Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	(% 100,00)	